I. MATEMATIRAKO KONPETENTZIAREN ITEMEN ADIBIDEAK

I.1 MARIO ETA ROSEREN HERRIA

MARIO ETA ROSEREN HERRIA




Mariok eta Rosek hainbat informazio bilatu dute bere herriari buruz: planoa, biztanleen kopurua, eta abar.

Informazio horrekin galdera batzuei erantzun behar diete haien eskola lan koadernoan

LIVEWORKSHEETS

01

Rose etxetik (puntu gorria) irten da. Hiru kale (lauki) ibili ditu hegoalderantz eta gero bi kale mendebalderantz.



Zein lekutara heldu da ?

A. Aintzirara
B. Antzokira
C. Gaztelura
D. Liburutegira

LIVEWORKSHEETS

02


Joan den urtean herrira etorri ziren 1200 auzoko berrien hiru laurdenak polikiroldegiko bazkide egin dira.

Zenbat dira?

A. 300
B. 600
C. 900
D. 1200

03

Haurrentzako zenbait igeritoki dago aintziratik hurbil. Honako formak dituzte:




Zeintzuek dute azalera berdina??

A. 1 eta 2
B. 2 eta 3
C. 2 eta 5
D. 3 eta 5

LIVEWORKSHEETS

04

Udalak aurten 18 jarleku eta 15 lorontzi jarri ditu herrian. Begira zein prezioak dituzten.



36 €



24 €

Zenbat diru gastatu du udalak guztira jarlekuetan eta lorontzietan?

Emaitza: ☐ €

LIVEWORKSHEETS

I.2 ATLETISMO-KLUBA

ATLETISMO-KLUBA

Atletismo-klubean badakite atletismo egitea oso jarduera onuragarria dela.

Gainera, arduratsua izaten eta lagunak egiten laguntzen du.



01 Klubeko zuzendariak ondoko taula egin du, neskak eta mutilak adinaren arabera banatzeko:

	7 urte	8 urte	9 urte	10 urte	11 urte	12 urte
Mutilak	23	23	23	20	15	13
Neskak	25	23	21	24	17	17

Zenbat neska gehiago dago atletismo-klubean mutilak baino?

A. 7
B. 8
C. 9
D. 10

LIVEWORKSHEETS

02

Klubeko 10 urte dituzten 24 neskei inkesta bat egin zaie, zein atletismo-modalitate gustatzen zaien gehien jakiteko. Erantzunak hauek izan dira:



- Erdiak altuera-jauzia aukeratu du.
- 7k luzera-jauzia aukeratu dute.
- Gainerakoek oztopo-lasterketa aukeratu dute.

Zenbat 10 urteko neskek aukeratu dute oztopo-lasterketa?

Erantzuna: ☐ neskak.

03

Klubeko 244 kideak atletismo-lehiaketa bat ikustera joan dira. Bakoitzak autobuserako 5€ eta estadioan sartzeko 3€ eman dizkio klubari. Estadiora heltzerakoan, sarrerak 2€ balio duela konturatu dira.



Zenbat diru ordaindu du klubak guztira irteeragatik?

Emaitza: ☐ €

LIVEWORKSHEETS

I.3 SUPERMERKATUKO ESKAINTZAK

SUPERMERKATUKO ESKAINTZAK

Supermerkatu bateko iragarkietan hurrengo produktu hauek ageri dira, prezio eta eskaintza bereziekin.



01	**Landerrek kakahueteak erosi ditu. 8 € ordaindu baditu, zenbat poltsa erosi ditu?**

A. 8 pakete.
B. 10 pakete.
C. 16 pakete.
D. 20 pakete.

02	Amaiak 4 urraburu eta 6 lupina erosi ditu.

Zenbat ordaindu du?

A. 24 €
B. 36 €
C. 48 €
D. 52 €

LIVEWORKSHEETS